

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	01 - DIPUTATU NAGUSIA
<b>Atala:</b>	0101 - Diputatu Nagusiaren Alorrareko Idazkaritza
<b>Programa:</b>	010 - Diputatu Nagusiaren Alorrareko Idazkaritza
<b>Funtzionala:</b>	920 - Administrazio orokorra

### Programa mota:

Departamentuaren egitura

### Misioa:

Departamentuaren lanari legezko bermea emateko asmoz, lan juridiko-administratiboa kudeatu eta burutzen dugu departamentuko diputatuarentzat, zuzendarientzat eta zerbitzuentzat. Horretarako, espedienteen tramitazioa legea betez egiten dela bermatzen da, indarrean sartuko diren lege berrietara egokitzeko lanak egiten dira eta baita aurrekontuaren kontrola ere.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Administrazioak, bere izaeragatik, modu jakin batean burutu behar izaten ditu bere egitekoak, arauak ezarritako pausuak zehatz mehatz jarraituz. Legeak, ordea, etengabe aldatzen edo egokitzen joaten dira eta gai berrien inguruan ere lege berriak ateratzen dira.

Legeaz gain, ordea, bada beste faktore garrantzitsu bat administrazioa bere egitekoak araudiaren arabera burutzeraz bultzatzen duena. Gizarteak azken urte hauetan izan duen bilakaera dela eta ere, jendeak zorrotz begiratzen dio administrazioak egiten duenari eta kontrol mekanismo berriak aktibatu dira.

Departamentuetako teknikariek, beraien jakintza sektorial espezifikoaz gain, administrazio orokorreko araudia ere ezagutzen dute; alabaina, ezinezkoa zaie legedi guztia behar bezala ezagutzea.

Gainera, idazkaritzetan departamentuaren jarduna koordinatzen da eta zerbitzu orokorrak bideratzen dira (erregistroa, artxiboa, hornidurak, proiektu informatikoak), eta horrek garrantzi handia du bere egunerokoan.

Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak NBEko Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) bat egin du; aurrekontu programa honen kasuan, bereziki 16. helburua hartzen da aintzat: Bakea, justizia eta instituzio sendoak.

2022. urtea hasi baino lehen covid-19ak GFaren jardueran zuen eraginak sortutako kezkak jarraitzen bazuen ere, gaixotasun horren bilakaera positiboak ezabatu egin du kezka hori. Nolanahi ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera areagotzeak ekarri dituen lan egiteko modu berriek zeregin garrantzitsua izaten jarraituko dute Idazkaritza honen eginkizunak garatzeko orduan.

### Beharraren eboluzioa:

Departamentuaren barruan unitate bat egotea, araudiak ezarritako betekizunak sakon ezagutzen dituen, departamentu barruko jardura koordinatzen duena eta komunak diren zerbitzuen hornidura zentralizatzen duena, funtsezkoa izateaz gain, etengabeko premia da.

### Nori zuzendua:

Departamentuko langilegoa eta zuzendaritza politikoa.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Idazkaritzako langilegoa eta finantza baliabideak.

### 2. Garatu beharreko

Txostenak, pleguak, oinarri arautzaileak, memoriak, hitzarmenak, kontratuak, ekintzak, ebazpenak, aurrekontuen aurreproiektua, tramitazio lanak...

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Laguntza juridiko-administratiboa, legearen betetzean, aurrekontuen kudeaketan eta kontratazio arloan.

### Programaren arau esparrua:

Administrazio arloko arautegi orokorra.


Departamentuaren jarduketa operatiboa

**Urteko helburua:** Departamentuaren kudeaketa hobetzea.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Idazkaritzako zerbitzuaren kalitatea neurtzeko egindako gogobetetze-inkestaren balorazioen batezbestekoa.	Ehunekoa	9,50	9,00	9,57	9,00
Epe barruan egiten diren ordainketen batezbesteko balioa.	Ehunekoa	95,70	86,00	93,80	87,00
Departamentuan izapidetutako eta epe barruan ebazitako espedienteen ehunekoa.	Ehunekoa	100,00	100,00	100,00	100,00

Joera


Idazkaritzako zerbitzuaren kalitatea neurtzeko egindako gogobetetze-inkestaren balorazioen batezbestekoa. – Ehunekoa



Epe barruan egiten diren ordainketen batezbesteko balioa. – Ehunekoa



Departamentuan izapidetutako eta epe barruan ebatzitako espedienteen ehunekoa. – Ehunekoa



Memoria

Urriaren 20ko 14/2020 Foru Dekretuak Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organiko eta funtzional berria zehazten du. 17. artikulua araber, Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritza diputatu nagusiaren menpean dago hierarkikoki eta zuzendari nagusienean funtzionalki; eta, eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste, Alorrak dituen eskumenen barruan: administrazio egintzak, kontratazio espedienteak, hitzarmenak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzea, bideratzea, jarraipena egitea eta legezketasun kontrola egitea; Alorreko organoei lege aholkularitza eskaintzea; fede publikoa; aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea, gastuen kontrola egitea eta Alorreko jardura ekonomikoaren kudeaketa, tramitazioa eta kontabilitate kontrola egitea; sistema informatikoa koordinatzea eta administrazio elektronikoa ezarri eta garatzea; laguntza tekniko ematea plangintza horizontaleko zereginei; gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen alorreko eta agiriaren kudeaketaren eta espediente elektronikoen alorreko eginkizunak; eta administrazioa berritzeko eta eraldatzeko politikak aplikatzen laguntzea departamentuko organoei. Eginkizun horiek justifikatzen dute Idazkaritzaren programaren urteko helburua «Departamentuaren kudeaketa hobetzea» izatea. Horren betetze maila neurtzeko, hiru erreferentzia hartzen dira kontuan: adierazlearen betetze maila, jarduketa ildoaren aurrerapen maila eta, azkenik, aurrekontuaren gauzatze maila. Jarraian, aukeratutako hiru adierazleak garatuko ditugu; Lehenengoa, «Idazkaritzako zerbitzuaren kalitatea neurtzeko egindako gogobetetze inkestaren balorazioen batezbestekoa», Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritzak departamentuko zuzendaritza emandako zerbitzuaren kalitateari buruzkoa da. Hori neurtzeko, gogobetetze inkesta bat egin da emandako zerbitzuei buruz, eta haren puntuazioa 1etik 10era bitartekoa izan behar zen, 1 oso txarra izanik eta 10 oso ona. 2022ko ekitaldiko aurrekontua egiteko orduan, ezarritako helburua 9 puntukoa zen. Kudeatzaileen puntuazioa jaso eta guztien batez bestekoa egin ondoren, 9,57 nota lortu da, eta, beraz, finkatuta genituen aurreikuspenak ere gainditu dira. Gure ustez, hori pozgarria da eta indartu egiten du Idazkaritza honetatik egiten dugun lana. Bigarren adierazleak, «Epe barruan egiten diren ordaintzen balioa», fakturak ordaintzeko batez besteko epearen berri ematen digu, 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean. Aurrekontua prestatzean, gure departamentuan sartzen diren fakturak ordaintzeko konpromisoen % 86 legez ezarritako 30 eguneko epearen barruan ordaintzeko helburua jarri genuen, eta, faktura horien ordaintzari buruzko dokumentazioa aztertu ondoren, ordaintza konpromisoen % 93,8 epe horren barruan ordaintzea lortu dugu. Datu hori positibotzat jotzen dugu, ezarritako aurreikuspena 7,8 puntutan gainditu baita, nahiz eta aitortu behar dugun jaitsiera txiki bat egon dela aurreko urtean lortutako balioarekiko. Hirugarren adierazleari dagokionez, «Departamentuan izapidetutako eta epearen barruan ebatzitako espedienteen ehunekoa», epearen barruan ebatzitako espedienteen kopurua adierazten da. Adierazle horretarako ezarritako helburua bete da, aurtan ere izapidetutako espediente guztiak epearen barruan ebatzi baitira. Helburu horren mende dauden 5 jardura ildoei, eta, beraz, ildo horien barruan sartzen diren ekintza guztiei dagokionez (13 dira guztira), oro har, % 100eko aurrerapen maila izan dute, eta aurrekontua egitean aurreikusitako epearen arabera bete dira. Aurrekontuaren gauzatzeari dagokionez, % 95,29 gauzatu da. Datu hori positiboa da, kontuan hartuta 2022ko ekitaldia ere urte zaila izan dela, Ukrainako gerrak eta inflazio indize altuek sortutako ziurgabetasun sozioekonomikoaren ondorioz. Egunerokotasunak indartu egiten du lanak behar bezala egiten direnaren uste hori, nahiz eta oraindik hobetzeko tarte dagoela uste dugun. Hizkuntza berdintasunaren ikuspegitik, ekintzak garatu dira Bikain Plana erreferentziatzat hartuta. Eusko

## Memoria

Jaurilaritzak emandako ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da, eta egiaztatzen du erakunde batek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren normalizazioaren inguruan duen maila. Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritzak, bere ekintza operatiboak garatzeko orduan, aipatutako planeko alderdi hauek azpimarratu ditu: Lehenengo ardatzari dagokionez, zerbitzu hizkuntzarena, zerbitzua eskaintzeko orduan bezeroekin edo herritarrekin izandako idatzizko zein ahozko harremana nabarmendu da. Bigarren ardatzari dagokionez, lan hizkuntzarena, bezeroak zerbitzua harremana nabarmendu da, non hizkuntzaren kudeaketa txertatuta dagoen bezeroekiko edo herritarrekiko harremanetan eta produktuak edo zerbitzuak zabaltzean. Gainera, aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzea bermatu da.

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunaren esparruan, genero ikuspegia txertatu da Diputatuen Kontseiluaren erabakietan, ekintzetan eta ebazpen proposamenetan, bai eta kontratuak eta dirulaguntzak izapidetzeko orduan ere. Aurrekontuen aurreproiektua egitean, generoaren ikuspegia kontuan hartuta definitu ziren planifikatu, ezarri eta ebaluatuko diren ekintzak.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Aholkularitza juridikoa eta legezketasun-kontrola



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>146.348,20</b>	<b>146.348,20</b>	<b>147.431,99</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Txostenak eta irizpenak ematea.	32.851,00	32.851,00	33.182,29		100,00
<b>1.2 Ekintza</b>					
Diputatuen Kontseiluaren erabaki, ekintza eta ebazpen proposamenak idaztea.	113.497,20	113.497,20	114.249,70		100,00

### 2. Jarduketa ildoak:

Administrazio kontratazioa eta dirulaguntzen kudeaketa



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>131.404,00</b>	<b>131.404,00</b>	<b>132.729,16</b>		
<b>2.1 Ekintza</b>					
Departamentuaren kontratuen jarraipena eta kontrola.	65.702,00	65.702,00	66.364,58		100,00
<b>2.2 Ekintza</b>					
Departamentuaren diru laguntzen jarraipena eta kontrola.	65.702,00	65.702,00	66.364,58		100,00

### 3. Jarduketa ildo:

Kontabilitate eta aurrekontuaren kudeaketa



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>365.644,80</b>	<b>365.644,80</b>	<b>340.662,38</b>		
<b>3.1 Ekintza</b>					
Aurrekontuen aurreproiektua idaztea.	98.553,00	98.553,00	99.546,86		100,00
<b>3.2 Ekintza</b>					
Aurrekontuen gauzatzearen eta kontabilitatearen jarraipena.	98.553,00	98.553,00	99.546,86		100,00
<b>3.3 Ekintza</b>					
Funtzionamendu gastu orokorrak.	168.538,80	168.538,80	141.568,66		100,00

### 4. Jarduketa ildo:

Langilegoa, erregistro orokorra, artxiboa, jakinarazpenak egitea eta fede publikoa



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>111.693,40</b>	<b>111.693,40</b>	<b>112.819,81</b>		
<b>4.1 Ekintza</b>					
Eskumena duen Departamentuarekin lankidetzaz langilegoaren arloan.	26.280,80	26.280,80	26.545,84		100,00
<b>4.2 Ekintza</b>					
Sarrera eta irteera erregistroaren antolakuntza eta kudeaketa.	26.280,80	26.280,80	26.545,84		100,00
<b>4.3 Ekintza</b>					
Dokumentu eta espedienteen artxibo orokorra antolatzea.	26.280,80	26.280,80	26.545,84		100,00
<b>4.4 Ekintza</b>					
Jakinarazpenak egin eta ziurtagiriak ematea.	32.851,00	32.851,00	33.182,29		100,00

### 5. Jarduketa ildoak: Zerbitzu informatikoak



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>290.597,60</b>	<b>290.597,60</b>	<b>262.804,33</b>		
<b>5.1 Ekintza</b>					
Aplikazio informatiko berriak sortu eta ekipamenduaren erosketak.	237.811,80	237.811,80	229.104,52		100,00
<b>5.2 Ekintza</b>					
Bestelako hornidurak.	52.785,80	52.785,80	33.699,81		100,00

## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Hizkuntza berdintasuneko politikak zeharkakotasuna du bere ardatz eta horrek adierazten du politika publiko guztiak jaso behar dituztela berau bermatzen duten neurri eta ekintzak. Alde horretatik, unitate honek aurrera jarraitu du kontratazioak eta laguntza publikoak jasotzen dituzten eragileen artean euskararen erabilera zabaltzen.

**Kuantifikazioa:** 3.475,43 ( % 0,35 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.1. Bezeroekiko (persona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	( % 38,89 )	2.1.1. Idatzizko harremanak	100,00
		2.1.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	100,00
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten herritar, enpresa eta erakundeei zuzendutako txostenak euskaraz sortzeko urratsak emango dira.	100,00
		memoriak euskaraz idatzita	100,00
		Hizkuntz irizpideak sartuko dira entitateekin sinatutako hitzarmenetan	100,00
		Diru laguntza lerroen oinarrietan hizkuntz irizpideak sartuko dira	100,00
		Proiekturen bat aurrera eramateko kontratu bat sinatu behar bada, honek hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea beteko du.	100,00
		Bi hizkuntzen erabilera bultzatuko da, eta edozein kasutan, hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak euskara eta gazteleraz egongo dira.	100,00
		Erabiltzaileei informazioa euskaraz zein erdaraz ahalbidetzen da	100,00
		Memoriak bi hizkuntz ofizialetan argitaratuko dira	100,00
3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	( % 11,11 )	Lan prozesu guztietan euskara erabiltzea	100,00
3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	( % 22,22 )	3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak	100,00
		Argitaratutako dokumentu guztiak elebitan egondo dira. Gero eta dokumentu gehiago euskaraz sortzeko pausoak emango dira	100,00
		Euskaraz bidaltzea langileentzako komunikazio orokorrak	100,00
		Bidaltzen diren idatzi guztiak 2 hizkuntza ofizialetan idatziak izango dira.	100,00




Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	( % 5,56 )	3.3.1. Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	100,00
		3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak	100,00
		3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	100,00
3.4. Baliabide informatikoak	( % 11,11 )	Monitorizazio tresna informatikoen erabilera eta datu tratamendua euskaraz egin ahal izatea bermatuko da.	100,00
6.2. BEZEROAK edo HERRITARRAK eta PRODUKTUA edo ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko eta herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen edo zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea	( % 11,11 )	6.2.1. Bezeroak edo herritarrak, zerbitzuak edo produktuak eta hornitzaileen kudeaketa	100,00



**GJH**

**Kuantifikazioa:** 996.447,67 ( % 100,00 )

**Programari lotutako GJH zerrenda**

<b>GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak</b>		<b>Ordainketa kredituak</b>	<b>Datozen urteetako gastuak</b>
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b> Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>996.447,67</b>	
<b>Helbubura</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	996.447,67	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Aholkularitza juridikoa eta legezketasun-kontrola	147.431,99	
	Administrazio kontratazioa eta dirulaguntzen kudeaketa	132.729,16	
	Kontabilitate eta aurrekontuaren kudeaketa	340.662,38	
	Langilegoa, erregistro orokorra, artxiboa, jakinarazpenak egitea eta fede publikoa	112.819,81	
	Zerbitzu informatikoak	262.804,33	
<b>Guztira</b>		<b>996.447,67</b>	



PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	665.394,00	665.394,00	671.712,06	671.712,06	671.712,06	100,95
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	142.258,00	142.258,00	118.046,31	118.046,31	115.022,82	80,86
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>807.652,00</b>	<b>807.652,00</b>	<b>789.758,37</b>	<b>789.758,37</b>	<b>786.734,88</b>	<b>97,41</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	238.036,00	238.036,00	211.338,50	211.338,50	209.712,65	88,10
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>238.036,00</b>	<b>238.036,00</b>	<b>211.338,50</b>	<b>211.338,50</b>	<b>209.712,65</b>	<b>88,10</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.045.688,00</b>	<b>1.045.688,00</b>	<b>1.001.096,87</b>	<b>1.001.096,87</b>	<b>996.447,53</b>	<b>95,29</b>



**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		671.712,20		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		115.022,82		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>		<b>786.735,02</b>		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		209.712,65		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>		<b>209.712,65</b>		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>		<b>996.447,67</b>		
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>		<b>95,29</b>		

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	01 - DIPUTATU NAGUSIA
<b>Atala:</b>	0101 - Diputatu Nagusiaren Alorrareko Idazkaritza
<b>Programa:</b>	020 - Identitate Korporatiboa eta Harreman Instituzionalak
<b>Funtzionala:</b>	439 - Beste jarduketa sektorial batzuk

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultura korporatiboa eta nortasuna zaintzea eta bermatzea, eta instituzioa hiritarregana, gizarte-eragileengana eta gainerako erakundeengana hurbiltzeko harremanak sustatzea.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Azken urteotan agerian geratu da erakunde publikoen eta herritarren arteko urruntzea. Gainera, Gipuzkoako biztanleek GFari buruz duten ezagutza oso mugatua da. Hori dela eta, beharrezkoa da prozesuen zilegitasuna sendotzea eta herritarrek eragile politiko eta instituzionalengan duten konfiantza eta inplikazioa areagotzea.

Herritarregandik hurbil egonik, komunitate bizitzaren garapenean parte hartzea erraztuko duen komunikazioari heldu behar zaio. Komunikazio egokia egitea gizarte modernoaren konplexutasunari aurre egiteko modu bat da eta, are gehiago, Gipuzkoan, non gizarteak komunitate zentzu indartsua duen eta non konpromisoa, parte-hartzea eta lurralde oreka balio nagusiak diren Gipuzkoako gizartearentzat. Horregatik, Aldundiak herritarrekiko eta eragile sozialekiko lankidetzat sustatuko du.

Gainera, Covid-19 pandemiaren ezusteko etorrerak bizkortu egin ditu mundua barneratzen ari zela zirudien eraldaketa sozial, produktibo eta ekonomiko handiak. Gai honetan Foru Aldundiaren kudeaketari buruzko informazioa ematea beharrezkoa izan da, eta uneoro informazio arduratsua, eguneratua eta egiazkoa ematea beharrezkoa izan da.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin nahi du NBEren Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH). Aurrekontu programa honen kasuan, 16. helburuan oinarritzen da: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

### Beharrendaren eboluzioa:

Irudi Korporatiboa eta Harreman Instituzionalen bulegoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi egokia bermatzeaz gain, erakunde eta herritarrekiko harremana sendotzeko ekimenak sustatzen jarraitu behar du, foru erakundea herritarregana hurbiltzeko eta haiek erakundearekiko duten pertzepzioa hobetzeko. Horretarako, sozializazio eta aurkezpen ekitaldiak egiten jarraituko dugu. Harreman ildo berriak abian jartzeko ahalegina egitea funtsezkoa da herritarrek ekintza publikoa urrun sumatzen duten uneetan. Ahalegin horretan, ekitaldi publikoek eta zuzeneko komunikazioak garrantzia hartuko dute.

### Nori zuzendua:

Herritarrak, gizarte eragileak, Foru Gobernua.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Bulegoko taldea, ekintzak garatzeko kontratatutako enpresa/agentziak, baliabide ekonomikoak, baliabide teknikoak.

### 2. Garatu beharreko

Bilerak, plangintzak, ekitaldiak, ezagutzak eguneratu eta hobetzeko prestakuntza

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Zuzeneko komunikazioa, komunikazio plan estrategikoa, reputazio korporatiboaren plana, ekitaldiak, protokoloa.

## Programaren arau esparrua:

4/2014 Foru Araua, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa.

Hauteskunde garaiko araudia.  
Kontratu publikoaren araudia.


2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

**Urteko helburua:** Herritarrekin komunikazio kualitatibo eta kuantitatiboa sustatzea, konfiantza maila handiagoa lortzeko.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Herritarrek erakundearen inguruan egiten duten balorazioa.	Kopurua	6,14	6,10	6,14	6,20
Komunikazio Plan berria jasotzen diren helburuen > % 90 betetzea.	Kopurua	45,00	67,50	70,00	90,00

Joera

Herritarrek erakundearen inguruan egiten duten balorazioa. – Kopurua



Komunikazio Plan berria jasotzen diren helburuen > % 90 betetzea. – Kopurua



## Memoria

Legealdi berria hastearekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak irudi berria aurkeztu zuen Etorkizuna Orain. Es futuro lelopean. Gipuzkoaren eredia gizartera zabaltzea eta erakundea modu egokian identifikatzea zen helburu nagusia, eta horretan jardun dugu legealdi osoan zehar. 2022an markaren kontsolidazioa lortu dugula esan dezakegu.

Erakunde harremani dagokienez, erakundeak lankidetzan jarraitu du Gipuzkoako etorkizuna eraikitzen; hori da sustatu nahi den eredia, eta horretarako, eragile desberdinekin etengabeko harremana eta proiektuak partekatzen ari gara. Harreman instituzionalen agenda egituratu dugu eta horiek sustatzeko espazio, kanal eta bide berriak garatu ditugu. 2022an, ekitaldi, bisita eta topaketen kopuruak %78 egin du gora aurreko urtearekin alderatuta (pandemiak ezarritako murrizketak gainditu dira eta ia normaltasun osoz egin dira ekintza guztiak).

Azkenik, Aldundiak ezarritako helburuen artean herritarrekiko konfiantza areagotzea dago, eta horretarako, beharrezkoa da komunikazio publikoa sustatzea gizartearekin zuzenean konektatzeko. Hori lortze aldera, 2022ko ekintzen planifikazioa egin genuen urte hasieran, eragile ezberdinekin etengabeko harremana eta proiektuak partekatzeko, eta gobernantza kolaboratiborako konfiantzazko espazioak sortzeko eta egonkortzeko.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Identitate korporatibo berria eta erakunde harremanak garatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren barne eta kanpo integrazio handiago bat lortzeko eta herritarrek GFArengan duten konfiantza sendotzeko.

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>63.412,50</b>	<b>63.412,50</b>	<b>65.747,78</b>		
<b>1.1 Ekintza</b> Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi korporatibo berria martxan jartzea, erakundearen irudia modernizatzeko.	12.682,50	12.682,50	13.149,56		100,00
<b>1.2 Ekintza</b> Komunikazio agentziekin irudi berria gizarteratzeko plana zehaztea.	8.455,00	8.455,00	8.766,37		100,00
<b>1.3 Ekintza</b> Kanpaina instituzionala bultzatzea.	8.455,00	8.455,00	8.766,37		100,00
<b>1.4 Ekintza</b> Aldundi barruan irudi berriaren aplikazioa azaltzea.	8.455,00	8.455,00	8.766,37		100,00
<b>1.5 Ekintza</b> Reputazio korporatiboaren plana abian jartzea.	8.455,00	8.455,00	8.766,37		100,00
<b>1.6 Ekintza</b> Foru Aldundiaren Protokoloa sustatzea.	8.455,00	8.455,00	8.766,37		50,00
<b>1.7 Ekintza</b> Bilera instituzionalak.	8.455,00	8.455,00	8.766,37		100,00

## 2. Jarduketa ildo:

Iritzi publikoari lotuta erakundeak duen komunikazio estrategia garatzea eta abiaraztea komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ateko harremanaren kalitatea hobetzeko.



% 100,00

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>21.137,50</b>	<b>21.137,50</b>	<b>21.915,93</b>		
<b>2.1 Ekintza</b> Herritarrengana hurbiltzeko ekitaldiak.	12.682,50	12.682,50	13.149,56		100,00
<b>2.2 Ekintza</b> Sozializazio ekitaldiak, aurkezpen instituzionalak, jardunaldiak...	8.455,00	8.455,00	8.766,37		100,00

**GENERO BERDINTASUNeko PLANA**

**Programaren genero garrantzia:** Txikia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

**Beharraren eboluzioa:**

Irudi korporatiboa eta Harreman instituzionalen bulegoaren helburu nagusia da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, haien pertzepzioa eguneratuz eta hobetuz, eta barne komunikazioa eta Batzar Nagusietakoa sendotzea, gardentasuna lortzeko urratsak eginez eta langileen inplikazioa areagotuz. Horretarako, beharrezkoa da genero ikuspegia txertatzea egingo diren ekintza guztietan. Ezin da barneko edo kanpoko komunikazio dokumenturik sortu genero ikuspegia txertatu gabe.

**Kuantifikazioa:** 54,79 ( % 0,06 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkartza eta/edo postu publikoetan.	( % 100,00 )	Ea.9.3.1. GFaren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	100,00	
		Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.	100,00	



## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Irudi korporatiboa eta Harreman instituzionalen bulegoaren helburu nagusia da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, haien pertzepzioa eguneratuz eta hobetuz, eta barne komunikazioa eta Batzar Nagusietakoa sendotzea, gardentasuna lortzeko urratsak eginez eta langileen inplikazioa areagotuz. Horretarako, beharrezkoa da hizkuntza berdintasunaren ikuspegia txertatzea egingo diren ekintza guztietan. Ezin da barneko edo kanpoko komunikazio dokumenturik edo kanpainarik sortu euskararen ikuspegia txertatu gabe.


**Kuantifikazioa:** 876,64 ( % 1,00 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	( % 100,00 )	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak	100,00
		1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak	100,00
		Prentsa iragarkiak eta gainerako publizitate ekintzak 2 hizkuntza ofizialetan egingo dira.	92,86

**GJH**

**Kuantifikazioa:** 21.915,93 ( % 25,00 )

**Programari lotutako GJH zerrenda**

<b>GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak</b>		<b>Ordainketa kredituak</b>	<b>Datozen urteetako gastuak</b>
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b>  Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>21.915,93</b>	
<b>Helburura</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	21.915,93	
	<b>Jarduketa ildoak</b>		
	Iritzi publikoari lotuta erakundeak duen komunikazio estrategia garatzea eta abiaraztea komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ateko harremanaren kalitatea hobetzeko.	21.915,93	
<b>Guztira</b>		<b>21.915,93</b>	



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Xedatua Dispuesto</b>	<b>Gauzatzea Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	84.550,00	84.550,00	87.663,72	87.663,72	87.663,72	103,68
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS						
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>84.550,00</b>	<b>84.550,00</b>	<b>87.663,72</b>	<b>87.663,72</b>	<b>87.663,72</b>	<b>103,68</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>84.550,00</b>	<b>84.550,00</b>	<b>87.663,72</b>	<b>87.663,72</b>	<b>87.663,72</b>	<b>103,68</b>



**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	87.663,71			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS				
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>87.663,71</b>			
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>				
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>87.663,71</b>			
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>103,68</b>			

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	01 - DIPUTATU NAGUSIA
<b>Atala:</b>	0110 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
<b>Programa:</b>	100 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
<b>Funtzionala:</b>	912 - Gobernu organoak

### Programa mota:

Departamentuaren egitura

### Misioa:

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen egitekoa da diputatu nagusiari bere eginkizunak betetzen laguntzea, Foru Aldundi osorako ikuspegi estrategikoa bultzatuz, 2020-2023 Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera, eta baita ere legealdiko gobernu programa dinamizatzea.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako 2020-2023 Plan Estrategikoak datozen lau urteetarako lehentasunak eta ibilbide orria ezartzen ditu. Helburua da aurreko legealdian hasitako bideari egonkortasuna ematea eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prestatzea, Etorkizuna Eraikizen proiektu estrategikoei garrantzi berezia emanaz. Gainera, diputatu nagusiak bere ardura eta lidergopean hartzen ditu agintaldi honetan foru gobernuaren ekintzaren oinarri izango diren izaera horizontaleko esparruak, hala nola: 2020-2023 Plan Estrategikoa eta Etorkizuna Eraikiz eredia, hizkuntza berdintasuna, genero berdintasuna, kultura demokratikoa, herritarrekin komunikazioa, eta kanpo harremanak.

Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak NBEko Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) bat egin du; aurrekontu programa honen kasuan, 5. eta 16. helburuak hartzen dira aintzat: Genero berdintasuna eta Bakea, justizia eta instituzio sendoak.

2022. urtea hasi baino lehen covid-19ak GFaren jardueran zuen eraginak sortutako kezkak jarraitzen bazuen ere, gaixotasun horren bilakaera positiboak ezabatu egin du kezka hori. Nolanahi ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera areagotzeak ekarri dituen lan egiteko modu berriek zeregin garrantzitsua izaten jarraituko dute aurreikusitako eginkizunak garatzeko orduan.

### Beharren eboluzioa:

Diputatu nagusiari dagozkion lidergo eta koordinazio funtzioen esparruan, gobernuaren jarduna koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko lanak eta 2020-2023 PE koordinatzeko lanak etengabeko beharrak dira.

### Nori zuzendua:

Foru gobernuak: diputatuak, zuzendariak...  
Langileria.  
Herritarrak.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Langilegoa, laguntza teknikoak eta finantza baliabideak.

### 2. Garatu beharreko

Koordinazio bilerak.  
Diputatuen Kontseiluaren bilkurak prestatzea.  
BBNNetako agerraldiak.  
Kontratuak, diru laguntzak ematea...

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Orientazio politikoa.  
Jarraibideak.  
Ekintza ofizialak eta protokoloa.

## Programaren arau esparrua:

Arloz arloko administrazio arautegia eta administrazio arautegi orokorra.  
6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.  
3/2019 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.


### Departamentuaren jarduketa operatiboa

**Urteko helburua:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren ekintza-arau orokorrak finkatzea.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Lortu diren helburu departamentalen portzentajea.	Ehunekoa	88,00	70,00	89,75	70,00
Departamentu Arteko Batzordearen jardunaren balorazioa.	Kopurua	7,22	7,50	6,75	7,50

### Joera

Lortu diren helburu departamentalen portzentajea. – Ehunekoa



Departamentu Arteko Batzordearen jardunaren balorazioa. – Kopurua



Memoria

Urriaren 20ko 14/2020 Foru Dekretuak Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organiko eta funtzional berria ezartzen du. 2. artikuluan jasotakoaren arabera, diputatu nagusiak, Diputatu Nagusiaren Laguntzarako Idazkaritzaz gain, Kabinetearen eta Identitate Korporatiboko eta Harreman Instituzionaletako Bulegoaren laguntza izango du. Diputatu Nagusiaren Kabineteak zuzenean lagunduko dio diputatu nagusiari gobernu lanean eta Lurralde Historikoaren interes orokorrak bultzatzen. Besteak beste, eginkizun hauek dagozkie Kabineteko buruari: Foru Aldundi osoaren ikuspegi estrategikoa bultzatzea, legealdiko gobernu programa dinamizatzea, zeharkako politikak eta Foru Aldundiaren politiken lurralde garapenaren ikuspegia bultzatzea, departamentuen jardueren arteko lerrokadura sustatzea, helburu partekatutako dituztenean, diputatu nagusiari laguntzea gobernu ekintzan gobernatzeko eredu irekiari eta lankidetzazkoari jarraikiz. Eginkizun horietan oinarrituta, Kabinetearen programaren urteko helburua da «Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren ekintza-arau orokorrak finkatzea». Horren betetze maila neurtzeko, hiru erreferentzia hauek hartzen dira kontuan; adierazlearen betetze maila, jarduketa ildoen aurrerapen maila eta, azkenik, aurrekontuaren gauzatze maila. Hautatutako bi adierazleei dagokienez, jarraian horien betetze maila garatuko dugu; Lehenengoak, «Lortu diren helburu departamentalen portzentajea», % 89,75ko balioa lortu du. 2022ko ekitaldiko aurrekontua egiteko orduan ezarritako helburua % 70era iristea izan zen, beraz, aurreikusitako helburua gainditu da. Bigarren eta azken adierazleari dagokionez, «Departamentu Arteko Batzordearen jardunaren balorazioa», 6,75ko balioa lortu du; ezarritako helburua 7,50ekoa zen, eta, beraz, adierazlearen balioa ezarritako helburuaren zertxobait azpitik geratu da. Helburu horren mende dauden «Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergotza» eta «Plan Estrategikoa» jarduketa ildoei dagokienez, eta, beraz, ildo horien barruan sartzen diren 6 ekintzei dagokienez, gehienek % 100eko aurrerapen maila izan dute, eta, gainera, aurrekontua egiteko aurreikusitako epeen arabera bete dira. 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren gauzatzeari dagokionez, % 102,28 gauzatu da. Datua oso positiboa da kontuan hartuta 2022ko ekitaldia ere urte zaila izan dela, Ukrainako gerrak eta inflazio indize altuek sortutako ziurgabetasun sozioekonomikoaren ondorioz. Nolanahi ere, gure ustez, adierazleek islatzen dituzten datuak onak dira eta lana modu eraginkorrean egitearen emaitza dira. Egunerokotasunak indartu egiten du lanak behar bezala egiten direnaren uste hori, nahiz eta oraindik hobetzeko tarte dagoela uste dugu.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergotza.



% 0,61



% 99,39

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>1.069.599,47</b>	<b>1.100.878,27</b>	<b>1.100.407,22</b>		
<b>1.1 Ekintza</b> Foru gobernuaren jardueraren orientazioa finkatzea.	347.945,75	332.306,35	352.669,04		100,00
<b>1.2 Ekintza</b> Gizarte zibilaren eta lurraldeko eragileen ekimen bereziak.	259.080,58	261.742,18	259.111,16		95,00
<b>1.3 Ekintza</b> Gipuzkoako Lurralde Historikoko protokolo eta ordezkariak ekitaldiak.	456.186,20	500.442,80	481.954,36		100,00
<b>1.4 Ekintza</b> Go.1.2.1. Berdintasunaren arloko erreferentziazko arau esparrua garatzen duten xedapenak, jarraibideak eta estrategiak onartzea.	6.386,94	6.386,94	6.672,66		100,00

### 2. Jarduketa ildoak:

Plan Estrategikoa.



% 100,00

### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	<b>695.891,50</b>	<b>664.612,70</b>	<b>705.338,08</b>		
<b>2.1 Ekintza</b> Plan Estrategikoan jasotako helburu guztien lidergotza eta gauzatzearen gainbegiratzea.	347.945,75	332.306,35	352.669,04		100,00
<b>2.2 Ekintza</b> Departamentu Arteko Batzordearen eta Departamentuetako Batzordeen lidergotza eta sustapena.	347.945,75	332.306,35	352.669,04		85,80



## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

**Beharraren eboluzioa:**

Azken urteotan aurrerapauso handiak ematen ari diren arren, oraindik urrun dago emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaz hitz egitea. Horregatik, jarraitu egin behar da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan foru politikak bultzatzen, bai eta genero ikuspegia benetan ezartzen foru gobernuaren ekintzan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin lankidetzan.

**Kuantifikazioa:** 6.672,66 ( % 0,37 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	( % 100,00 )	Go.1.2.1. Berdintasun arloan erreferentziarako arau esparrua garatzen duten xedapen, jarraibide eta estrategiak onartzea: politiken plangintza, genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio prozedura, hurrengo legegintzalditik aurrera kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun klausulak txertatzeko jarraibideak eta GFako langileak trebatzeko estrategia.	100,00	

## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Nahiz eta, formalki, lurralde honetako bi hizkuntza ofizialek onarpen bera duten, argi dago haien hizkuntza egoera ez dela berdina. Horregatik, jarraitu egin behar da euskararen aldeko neurriak hartzea bultzatzen, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna lortzeko, bai eta hizkuntza berdintasunaren ikuspegia benetan ezartzen Foru Aldundiaren gobernu ekintzan, Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzarekin lankidetzan.



**Kuantifikazioa:** 9.028,73 ( % 0,50 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	( % 16,67 )	1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak	100,00
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Ekitaldien antolamendu fasean hizkuntza trataera zehatza definituko da aldibereko interpretazioaren beharrak barne.	100,00
		Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da	100,00
3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	( % 33,33 )	3.1.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	100,00
		Lan prozesu guztietan euskara erabiltzea	50,38
3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	( % 16,67 )	3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak	100,00
		Argitaratutako dokumentu guztiak elebitan egondo dira. Gero eta dokumentu gehiago euskeraz sortzeko pausoak emango dira	100,00
		Euskaraz bidaltzea langileentzako komunikazio orokorrak	100,00
		Bidaltzen diren idatzi guztiak 2 hizkuntza ofizialetan idatziak izango dira.	100,00
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	( % 16,67 )	3.3.1. Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	60,00
		Euskaraz bidaltzea langileentzako komunikazio orokorrak	60,00
		Bileretako hizkuntza protokolo baten sorrera	60,00
6.1. Estrategia: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	( % 16,67 )	6.1.1. Hizkuntzen kudeaketarako planteamendua, epe luzerako ikuspegiarekin eta epe ertain edota laburrerako helburuekin, eta horren ebaluazioa	100,00
		6.1.2. Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak	100,00

GJH

**Kuantifikazioa:** 1.805.745,30 ( % 100,00 )

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>5-GENERO BERDINTASUNA</b> Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	<b>6.672,66</b>	
<b>Helburura</b>	5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan.	6.672,66	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergotza.		6.672,66	
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b> Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>1.799.072,64</b>	
<b>Helburura</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	1.799.072,64	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
Plan Estrategikoa.		705.338,08	
Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergotza.		1.093.734,56	
<b>Guztira</b>		<b>1.805.745,30</b>	



## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.277.391,00	1.277.391,00	1.334.530,99	1.334.530,99	1.334.530,99	104,47
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	282.490,00	204.293,00	199.103,23	199.103,23	198.688,32	97,26
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	173.000,00	191.301,00	180.020,97	180.020,97	180.020,97	94,10
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>1.732.881,00</b>	<b>1.672.985,00</b>	<b>1.713.655,19</b>	<b>1.713.655,19</b>	<b>1.713.240,28</b>	<b>102,41</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	32.610,00	92.506,00	92.505,03	92.505,03	92.505,03	100,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>32.610,00</b>	<b>92.506,00</b>	<b>92.505,03</b>	<b>92.505,03</b>	<b>92.505,03</b>	<b>100,00</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.765.491,00</b>	<b>1.765.491,00</b>	<b>1.806.160,22</b>	<b>1.806.160,22</b>	<b>1.805.745,31</b>	<b>102,28</b>



**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		1.334.530,97		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		198.688,33		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES		180.020,97		
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>		<b>1.713.240,27</b>		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		92.505,03		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>		<b>92.505,03</b>		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>		<b>1.805.745,30</b>		
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>		<b>102,28</b>		



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Sarrerren kapituluak Capítulos de ingresos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Gauzatze Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>	<b>Gastuari lotutakoak Afectados a gasto</b>
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS			390,09		
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>			<b>390,09</b>		
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>					
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>					
<b>Guztira / Total</b>			<b>390,09</b>		

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	01 - DIPUTATU NAGUSIA
<b>Atala:</b>	0120 - Estrategia Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	200 - Estrategia
<b>Funtzionala:</b>	912 - Gobernu organoak

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Estrategia Zuzendaritzaren xedea da Aldundiko estrategia orokorra definitzeko prozesua lideratzea eta bultzatzea, eta departamentu guztien programak eta jarduerak ikuspegi global eta sistemiko baterantz orientatzen laguntzea.

Aldi berean, erakundearen eta gizartearen arteko harremana eta Aldundi barruko eguneroko kudeaketa Etorkizuna Eraikizek sustatzen duen lankidetzazko gobernantza ireki baten bitartez lantzea.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Etorkizuna Eraikizen ebaluazio prozesuan lortutako emaitza nagusiak nabarmendu behar ditugu. Horretarako, hedapenaren ondorioz izandako aldaketa nagusiak eta aurre egin beharreko erronka nagusiak erakutsiko ditugu.

#### 1. Gertatu diren aldaketak:

Etorkizuna Eraikizen bidez, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira kultura politiko berriari eta herritarrek erakundeengan duten konfiantzari dagokienez. Aldaketa nabarmenetako bat da lankidetzazko gobernantza diskurtsoan eta agenda politikoan sartzea. Ikuspegi horrek balioan jartzen du Administrazio Publikoaren, enpresa sarearen, ezagutzaren eragileen (Akademia + I+G+b zentroak) eta gizarte zibilaren (hirugarren sektorea + herritarrak) arteko zeharkako lankidetzak, jatorritik helize laukoitzaren ereduaren pean. Gainera, lehen ematen ez ziren zeharkako proiektuak bultzatzen ari dira, eta politika publikoak elkarrekin batera sortzea lortu da, Think-Tank-ak zeregin nabarmena izan duelarik. Bestalde, alderdi garrantzitsu gisa, nabarmentzekoa da erreferentziatzko zentroak eratu izana eta zeharkako proiektu estrategikoak abian jarri izana. Azkenik, aipatzekoa da administrazioan hausnarketa funtsezko elementu gisa sartu dela, herritarrek erakundeengan duten konfiantza hobetzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko erabaki politikoak hartzeko orduan.

#### 2. Erronkak:

Ebaluazioan parte hartu duten pertsona gehienek adierazi dute lankidetzazko gobernantzak eragin handia izan dezakeela etorkizunean, eta, beraz, Etorkizuna Eraikizen erronka nagusia ekimenaren iraunkortasuna da, legealdi aldaketetatik haratago. Gainera, Etorkizuna Eraikizek honako erronka hauei ere erantzun beharko die etorkizunean: Etorkizuna Eraikizen zeregina indartzea, politika publikoak diseinatzeko, garatzeko eta sendotzeko eredu gisa. Barne mailan duen erronka nagusietako bat da Etorkizuna Eraikiz ulertu dadila lurraldeko politika publikoa bultzatzeko erakundearen apustu gisa.

Interes talde berriak sartzea.

Jardun biko kudeaketa. Ereduak behar bezain malgua izan behar du, gobernuaren ekintza nagusia eta balio berria sortzera bideratutako agenda publiko eta esperimentalak konbinatzeko.

Unibertsitateak Etorkizuna Eraikizen duen zeregina. Garrantzitsua da Unibertsitatea proiektuan inplikatzeko jarraitzea eta unibertsitateen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzak sendotzea.

Maila anitzeko gobernantza. Gipuzkoak aurre egin behar dien erronken konplexutasuna dela eta, beharrezkoa da maila anitzean lankidetzazko gobernantza bultzatzea, bai udalen mailan, bai Eusko Jaurlaritzaren mailan, eta baita beste bi aldundiekiko lurraldearteko mailan ere.

Ebaluazioa eta ikaskuntza. Ebaluazioa eta etengabeko ikaskuntza funtsezkoak dira ezarritako ekintzak eta politikak hobetzeko eta doitzeko.

GFAk, barne mailan, Etorkizuna Eraikiz eredu bere egitea modu integralean.

Komunikazioa. Azken erronka handia da Etorkizuna Eraikizen komunikazioa egitea, bai GFAREN barruan, bai kanpoan.

Bestalde, ikuspegi estrategikoa lortzeko eta politika publikoen kudeaketa eraginkor eta efizientea egiteko, EBA funtsezko tresna da. Hala ere, ikusten da tresna horren sendotasunak eta erabilerak badutela hobetzeko tartea. Hala, beharrezkoa da ahalegin bat egitea tresnaren erabilera haren potentzial osora pixkanaka hurbiltzeko, gaur egun aurrekontua kudeatzen dutenek, oro har, ez baitute tresna modu eraginkorrean erabiltzen. Ildo horretan, entzute prozesu baten ondoren, gai horretan aurrera egiteko ekintza batzuk identifikatu ziren: aplikazio informatiko berri bat diseinatu da jarraipena egiteko, eta beste

ekintza batzuk diseinatu dira kudeatzaileei prozesu horretan laguntzeko.

#### **Beharraren eboluzioa:**

Aldaketa azkar eta sakonen testuinguru horretan, egiaztatzen da pertsona, enpresa, erakunde edo gizarte orok, bizirauteko, ingurunea aldatzen doan abiadura berean ikasi behar duela gutxienez; eta aurrera egin nahi badu, abiadura handiagoan ikasi beharko duela. Zentzu horretan, administrazio publikoak ez daude printzipio horretatik kanpo. Hala ere, bistakoa da politika eta errealitate sozial, ekonomiko eta teknologikoa ez doazela batera, hau da, ez dela behar adinako abiadurarekin ikasten ari, eta horregatik oso garrantzitsua da desoreka horri erantzuneko dien mekanismoak eta prozedurak gaitzen jarraitzea.

Horregatik, uste dugu honako hau behar dela:

a) Alde batetik, epe ertain-luzerako ikuspegia txertatzea, eta koordinazioa eta zeharkakotasuna sendotzea. Horretarako PEa eta EBA tresna nagusiak izanik. Departamentuen parte hartzea eta inplikazioa benetakoa eta sendoa lortuz.

b) Bestetik, gobernantzaren ikuspuntutik, beharrezkoa da lankidetzaren sustatzea beste erakundeekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin; era berean, ezinbestekoa da horiekin lankidetzaren aritzea etorkizuneko erronkak identifikatzeko eta proiektu berritzaileak diseinatzeko, politika publikoak ingurune aldakor horretara egokitzeko eta doitzeko balio dezaten. Eta behar horri aurre egiteko EE ereduaren bitartez egiten da nagusiki. Horretarako, aurreko legegintzaldian hasitako bideari sendotasun eman behar zaio, organizazio osoa inplikaturik, ereduaren aplikazioan sakonduz, sozializazioan ahalegin berezia eginez.

#### **Nori zuzendua:**

Diputatu Nagusia eta GFeko gainerako departamentuak. Eragile sozial eta ekonomikoekin harremanak landuz

### **Programaren estrategia.**

#### **1. Baliabideak (inputak):**

Giza baliabideak, aplikazio eta egitura informatikoak, aurrekontuak - finantza baliabideak eta laguntza teknikoa.

#### **2. Garatu beharreko**

- Etorkizuna Eraikiz bultzatzeko eta koordinatzeko lanak egitea.
- Beste departamentu batzuei politika publikoak kudeatzen eta bideratzen laguntzeko eta koordinatzeko lanak egitea.
- Antolaketa kulturaren aldaketa bultzatzea, lankidetzazko gobernantza aurre hartzailearen euskarri izango dena.

#### **3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Etorkizuna Eraikiz-Gipuzkoa Taldean dinamizatzen eta koordinatzen laguntzea; b) Etorkizuna Eraikiz- GipuzkoaLab proiektuak dinamizatzen eta koordinatzen laguntzea; c) Etorkizuna Eraikiz-en portafolioa kudeatzea eta koordinatzea eta ekimen osoa monitorizatzea; d) Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko hileko txostenak eta urteko txostena; e) EBA prozesua sendotzea eta Departamentuen arteko Batzordearen inguruko zereginak dinamizatzea.

#### **Programaren arau esparrua:**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa.

Etorkizuna Eraikiz-en ereduaren gidaliburua

6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa.

Administrazio arautegi orokorra

### **2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**


**Urteko helburua:** Lankidetzazko Gobernantzaren bitartez agenda politiko berria sustatzea, hausnarketa prozesuak eta proiektu esperimentalak abiaraziz (Etorkizuna Eraikiz).




Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Hausnarketa prozesuetan parte hartu duten pertsonak	Kopurua	519,00	275,00	669,00	575,00
GipuzkoaLab esparruan garatutako proiektu kop.	Kopurua	111,00	71,00	132,00	120,00
Lankidetzazko gobernantzaren balioespena.	Kopurua	0,00	7,20	7,50	7,50

Joera


Hausnarketa prozesuetan parte hartu duten pertsonak - Kopurua



GipuzkoaLab esparruan garatutako proiektu kop. - Kopurua



### Lankidetzazko gobernantzaren balioespena. – Kopurua



## Memoria

### HE.01 LANKIDETZAZKO GOBERNANTZAREN BITARTEZ AGENDA POLITIKO BERRIA SUSTATZEA, HAUSNARKETA PROZESUAK ETA PROIEKTU ESPERIMENTALAK ABIARAZIZ (ETORKIZUNA ERAIKIZ).

2022ko jarduketa garrantzitsuenak.

1.- Etorkizuna Eraikizen gobernantza eta ekosistemak indartzea.

1.1.- Gobernantza Laborategia eratzea.

Bere oinarriko eginkizuna da lankidetzazko gobernantzaren filosofia bermatzea Etorkizuna Eraikizen prozesuetan eta proiektuetan, eta ekimenen arteko konektibitatea eta harreman logika sustatzea, ikuspegi sistemikoa bermatzeko.

1.2.- Think Tank-a eta Erreferentziazko Zentroak eta Estrategiak ekosistemak indartzeko eta proiektuen arteko sinergiak ezartzeko tresna gisa.

Etorkizuna Eraikizen portafolioa osatzen duten proiektuetatik, Think Tank-ak eta erreferentziazko zentroek eta estrategiek zeregin garrantzitsua izan behar dute ikuspegi sistemikoa eta lankidetzazko gobernantza bultzatzeko. Zeregin hori indartzeko, 2020an Think Tank-aren bertsio berriarekin hasitako bidean sakondu dugu, eta beharrezko mekanismoak aztertzen ari gara erreferentziazko zentroek beren ingurunean eratzten diren ekosistemen katalizatzaile eta dinamizatzaile gisa duten rola indartzeko.

2.- Espazioak indartzea, ikuspegi partekatua sortzeko. Etorkizuna Eraikizen osoko bilkura instituzionalizatzea.

Lidergo kolektiboko gaitasunak garatzeko eta kudeaketa sistemikoa egiteko, beharrezkoa da ikaskuntza kudeatzea eta ekosistemako eragileak ereduaz jabetu daitezela sustatzea.

Etorkizuna Eraikizen osoko bilkura Etorkizuna Eraikiz osatzen duten hiru espazioen (Gipuzkoa Taldean, GipuzkoaLab eta Erreferentziazko Zentroak eta Estrategiak) arteko lotura puntua da, Etorkizuna Eraikizen ikuspegi sistemikoa bermatzeko.

3.- Ebaluazioa.

Etorkizuna Eraikizen esparruan, ikusi dugu beharrezkoa dela ebaluazioa modu sistematikoan txertatzea, Etorkizuna Eraikizen gobernantza bideratzeko elementu nagusi gisa eta ikasteko tresna gisa. Lehentasun horri erantzuteko, ebaluazio prozesu bat jarri dugu abian, eta lehenengo fasea 2022. urtearen amaieran bukatu zen.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraldaketa.

Foru Aldundiaren erakunde osoaren inplikazioa funtsezkoa da Etorkizuna Eraikiz gidatu eta bultzatzeko. Horregatik, 2022an proiektu esperimental berri bat jarri genuen abian, koherentzia eman nahi diona Gobernantza Departamentutik modu arruntean garatzen ari diren ekintzen multzoari, eta, gainera, Foru Aldundiaren kultura aldaketan aurrera egiten lagunduko duten ekintza eta mekanismo berritzaile berriak identifikatu eta abian jarri nahi dituen.

5.- Berrikuntza gaitasunak indartzea.

Etorkizuna Eraikiz nabarmentzen duen ezaugarri nagusietako bat berrikuntza eta esperimentazioa dira.

2021. urtearen amaieran, misioetara bideratutako berrikuntza sustatzeko interesa antzeman genuen (Mariana Mazzucato-k zabaldutako kontzeptuaren arabera). 2022. urtean gogor lan egin dugu bi misio definitzen eta

## Memoria

hedatzen: mugikortasun berria eta elikadura jasangarria. Uste dugu metodologia oso emankorra izan daitekeela lankidetzan eta ikuspegi sistemiko batekin proiektu berritzaileak garatzeko, beharrezko laguntzarekin (idazkaritza teknikoak, Climate Kic eta Agirre Lehendakaria Center).

6.- Aniztasuna: gazteen parte-hartzea.

Entzuteko foroetan, proiektuetan parte hartzen dutenen aniztasuna kudeatzearen eta bermatzearen garrantzia azpimarratu zen. Horri esker, ezaguera daukagun gai bat da, lehen nahikoa ez genuena.

Ildo horretan, gazteen parte-hartzea sustatzeko kezka dago, komunitate politikotik urrun daudela egiaztatu baita. Horregatik, 2022an zehar azterketa bat egin dugu haien interesak eta kezkak eta sortzen dituzten komunitateak alde aurretik ezagutzeko. Helburua da Gipuzkoako gazteek pentsatutako ekimenak sortzeko balioko duten mekanismoak diseinatzea. Horretarako, tresna eta prozesu egokiak eman behar zaizkie, lurraldean eragina izango duten ekintzak gara ditzaten.

7.- Etorkizuna Eraikizen iraunkortasuna bermatzea. Trantsizio prozesua diseinatzea.

Etorkizuna Eraikizen ekosisteman zabaldua dagoen kezka bat da denboran iraungo duela bermatzea, hauteskunde zikloetatik haratago. 2022an zehar, norabide horretan lagun dezaketen hainbat ekintza garatu ditugu. Honako hauek nabarmentzen dira:

a) Etorkizuna Eraikiz kasua lantzea.

b) Etorkizuna Eraikizen ebaluazioa.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraldaketa proiektuak jarraipena izango du 2023an, eta hurrengo urteetan, eta funtsezkoa izango da Etorkizuna Eraikizen jarraipena bermatzeko.

d) 2023an, ezinbestekoa izango da jarduerak eta mekanismoak diseinatzea gobernu aldaketa aukera bat izan dadin Etorkizuna Eraikiz ekarri duen eraldaketan sakontzeko.

8.- Proiektu esperimental berriak eta erreferentziako bi estrategia berri abian jartzea.

2022an zehar proposatutako hobekuntza eremuetan eragiteko ekintza espezifikoak garatzeaz gain, ohiko jarduerarekin jarraitu dugu, Etorkizuna Eraikizen portafolioa osatzen duten proiektu sorta hedatuz.

Hala, honako hauek jarri ditugu abian:

a) Lau proiektu esperimental berri: Lehen sektoreko profesional mistoak, Lurraldea, hizkuntza eta sozioekonomia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraldaketa eta Gipuzkoa Living Lab.

b) Bi misio: Mugikortasun Berriaren Misioa eta Elikadura Jasangarriaren Misioa.

c) Erreferentziako bi estrategia berri: Gipuzkoa Quantum eta Gipuzkoa Gantt.

Balorazio kuantitatiboa

Helburuaren betetze maila neurtzeko eta baloratzeko, hiru erreferentzia hartu dira kontuan: a) Adierazleen betetze maila; b) Jarduera ildoan aurrerapen maila; c) Aurrekontuaren gauzatze maila.

a) Adierazleen betetze maila. Helburuaren betetze maila neurtzeko, hiru adierazle erabili dira:

1.- Hausnarketa prozesuetan parte hartu duten pertsonak (2022ko aurreikuspena: 275; 2022ko errealak: 669).

2.- GipuzkoaLab esparruan garatutako proiektu kopurua (2022ko aurreikuspena: 71; 2022ko errealak: 132).

3.- Lankidetzako gobernantzaren balioespena (2022ko aurreikuspena: 7,20; 2022ko errealak: 7,20).

Hausnarketa-prozesuetan parte hartzen duten pertsonen kopuruari dagokionez, 2022rako aurreikusitako helburua lortu da.

Bigarren adierazlearen kasuan, datua ekitaldirako ezarritako helburuaren gainetik geratzen da. Lan handia egin da proiektuekin aurrera jarraitu ahal izateko, eta emaitza positiboa izan da.

Hirugarren adierazleak ere ezarritako helburua lortu du.

Oro har, adierazleen bilakaera positiboa dela esan daiteke.

b) Jarduera ildoan aurrerapen maila (% 96)

Helburua lortzeko, 4 jarduera ildo ezarri ziren:

1.- Etorkizuna Eraikizen Aginte Taularen eta Portafolioaren koordinazioa, kontrola eta jarraipena.

2.- Etorkizuna Eraikizen Urteko Kudeaketa Plana lantzea eta garatzen laguntzea: Gipuzkoa Taldean-en eta GipuzkoaLab-en garatutako jarduerak.

3.- Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta komunikazioa egin eta garatzeko laguntza ematea, eredu gizartean aintzat hartua izan dadin.

4.- GFA nazioarteko sareekin lotzea eta lurraldearen presentzia nazioartean bermatzea.

Jarduera ildo horietan eta horien ekintzetan izandako aurrerapen maila oso handia izan da: % 96koa. Programatutako ekintzak modu egokian eta hasieran ezarritako epeen barruan garatu dira.

c) Aurrekontuaren gauzatze maila (% 93)

Azkenik, aurrekontuaren gauzatze maila % 93koa izan da. Oro har, programatutako ekintzak behar bezala

## Memoria

gauzatu ahal izan dira aurrekontu ekitaldiaren barruan.

### Hizkuntza berdintasunaren ikuspegia

Helburu honek zeharkako politiketan izan duen eraginari dagokionez, azpimarratu behar da Estrategiako programak hizkuntza berdintasunaren ikuspegia txertatzen duela bere ekintza guztien definizioan eta garapenean. Zentzu horretan, garrantzi berezia du hizkuntzen erabilera egokia bermatzea antolatzen diren bilera eta ekitaldietan. Era berean, Etorbizuna Eraikiz ekimenaren esparruan koordinatzen diren proiektuen kudeaketan, euskara modu ekitatiboan erabiltzea da kudeatu beharreko aldagaietako bat. Halaber, Estrategia programatik alderdi operatiboetan lagundu dugu Badalab abian jartzeko (Partzuergoa martxan jartzea, lantaldea osatzea, eraikina egokitzea).

### Genero berdintasunaren ikuspegia

Genero berdintasunaren kasuan, Estrategiako programak genero berdintasunaren ikuspegia ere txertatzen du bere ekintza guztien definizioan eta garapenean. Berdintasunerako III. Planak Estrategia Zuzendaritzari agintzen dio Gobernu Ona, Ahalduntzea eta Ekonomia esparruetan ekintzak garatzeko ardura. Ildo horretan, nabarmendu behar da ahalduntzearen esparruan, 2022an, Etorbizuna Eraikiz Emakumeen Etxeak proiektu esperimentalean aritu gara lanean. Era berean, eta zuzendaritza honek garatu beharreko beste ekintzetako bat kontuan hartuta (Gobernu Onaren esparrua), hau da, sexuaren arabera bereizitako datuak eta genero adierazleak sartzea GFaren azterlan, plan, memoria eta gainerako dokumentazio estrategikoetan, adierazi behar da 2022an aginte taula bat lantzen aritu gara, sexuaren arabera bereizitako adierazleekin, GFaren Plan Estrategikoaren eraginaren jarraipena egiteko.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Etorbizuna Eraikiz-en aginte koadroa eta dokumentu zorroa koordinatu, kontrolatu eta jarraitzea.



% 75,00



% 25,00

### Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>42.222,69</b>	<b>42.222,69</b>	<b>42.523,26</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Etorbizuna Eraikiz-en zuzendaritza, portafolioa eta monitorizazioa	42.222,69	42.222,69	42.523,26		100,00

### 2. Jarduketa ildoak:

Etorbizuna Eraikiz-en Urteko Kudeaketa Plana egin eta garatzeko laguntza ematea: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-en garatutako jarduerak.



% 3,04



% 9,61



% 17,12



% 70,23

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>7.159.010,73</b>	<b>7.124.071,71</b>	<b>6.491.110,05</b>		
<b>2.1 Ekintza</b>					
Think Tank-ari laguntza eskaini 2022-2023 epealdiko plangintza eta kudeaketan	286.706,15	271.806,15	216.207,23		100,00
<b>2.2 Ekintza</b>					
Herritarren proiektuen kudeaketa eta bultzada	594.193,09	594.193,09	577.618,75		100,00
<b>2.3 Ekintza</b>					
Gazteen proiektuen kudeaketa eta bultzada	111.483,46	78.203,46	11.683,84		29,20
<b>2.4 Ekintza</b>					
Ekinez ikasi, ikasketarako ekintza	51.483,44	51.483,44	45.226,37		100,00
<b>2.5 Ekintza</b>					
Lurralde Garapenerako Laborategia: lankidetzazko gobernantzaren dinamizazioa	172.708,64	172.708,64	149.962,78		100,00
<b>2.6 Ekintza</b>					
Hausnarketa estrategikoa indartzeko espazioak	349.568,19	299.568,19	366.937,91		100,00
<b>2.7 Ekintza</b>					
Etorkizuna Eraikiz portafolioaren esperimertzio sistemikoa	804.137,78	804.137,78	803.979,17		90,00
<b>2.8 Ekintza</b>					
Etorkizuna Eraikizen markoan beste eragileekin lankidetzazko hitzarmenen jarraipena	612.678,19	612.678,19	611.208,77		90,00
<b>2.9 Ekintza</b>					
GipuzkoaLab - Proiektu esperimertzalen sustapena	997.015,38	947.086,36	758.598,87		90,00
<b>2.10 Ekintza</b>					
Etorkizuna Eraikiz City Lab	211.483,46	211.483,46	11.683,84		89,20
<b>2.11 Ekintza</b>					
Etorkizuna Eraikiz-en markoan erakunde akademikoekin lankidetzazko hitzarmenen jarraipena	749.595,19	749.595,19	742.381,55		100,00
<b>2.12 Ekintza</b>					
Gizarte zibilaren eta lurraldeko eragileen jardura singularrak	673.056,46	786.226,46	750.686,28		90,00
<b>2.13 Ekintza</b>					
Arantzazulab erreferentzia zentrua: herritarrak agenda publikoan sartzea	517.225,19	517.225,19	517.525,76		100,00
<b>2.14 Ekintza</b>					
Badalab erreferentzia zentrua: hizkuntzaren berrikuntza sustatzea	569.856,19	569.856,19	551.305,86		100,00

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>2.15 Ekintza</b>					
Udal Etorkizuna Eraikiz: tokiko mailan gobernantza ereduaren kontzeptualizazioa eta akademizazioa	196.336,46	196.336,46	182.871,83		100,00
<b>2.16 Ekintza</b>					
Gipuzkoako etorkizunaren egitasmo estrategikoa	261.483,46	261.483,46	193.231,24		90,00

### Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>1.936.734,00</b>	<b>2.764.584,00</b>	<b>2.568.730,66</b>
<b>2.2 Ekintza</b>			
Herritarren proiektuen kudeaketa eta bultzada	200.000,00	200.000,00	200.000,00
<b>2.3 Ekintza</b>			
Gazteen proiektuen kudeaketa eta bultzada	50.000,00	50.000,00	
<b>2.6 Ekintza</b>			
Hausnarketa estrategikoa indartzeko espazioak	80.000,00	80.000,00	15.000,00
<b>2.7 Ekintza</b>			
Etorkizuna Eraikiz portafolioaren esperimendazio sistemikoa	550.000,00	550.000,00	500.000,00
<b>2.9 Ekintza</b>			
GipuzkoaLab - Proiektu esperimendalen sustapena		102.850,00	71.997,50
<b>2.10 Ekintza</b>			
Etorkizuna Eraikiz City Lab		425.000,00	425.000,00
<b>2.11 Ekintza</b>			
Etorkizuna Eraikiz-en markoan erakunde akademikoekin lankidetzaren hitzarmenen jarraipena	648.500,00	648.500,00	648.500,00
<b>2.12 Ekintza</b>			
Gizarte zibilaren eta lurraldeko eragileen jardura singularrak	22.500,00	322.500,00	322.500,00
<b>2.15 Ekintza</b>			
Udal Etorkizuna Eraikiz: tokiko mailan gobernantza ereduaren kontzeptualizazioa eta akademizazioa	135.734,00	135.734,00	135.733,16
<b>2.16 Ekintza</b>			
Gipuzkoako etorkizunaren egitasmo estrategikoa	250.000,00	250.000,00	250.000,00

### 3. Jarduketa ildoak:

Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredia gizarteratze aintzat hartua izan dadin.



% 91,27



% 8,73

#### Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>880.321,94</b>	<b>880.321,94</b>	<b>1.016.597,26</b>		
<b>3.1 Ekintza</b> Gizarteratze jardueren planifikazioa, bultzada, kudeaketa eta jarraipena egin	355.445,17	355.445,17	538.964,86		100,00
<b>3.2 Ekintza</b> GFAREN departamentuek Etorkizuna Eraikiz bereganatzeko laguntza eskaini	5.741,73	5.741,73	5.841,92		90,00
<b>3.3 Ekintza</b> Komunikazio jardueren planifikazioa, bultzada, kudeaketa eta jarraipena	111.483,46	111.483,46	104.585,45		100,00
<b>3.4 Ekintza</b> Akademizazioaren jardueren planifikazioa, bultzada, kudeaketa eta jarraipena egin	162.996,39	162.996,39	129.782,94		100,00
<b>3.5 Ekintza</b> Etorkizuna Eraikiz eredia partekatzea eta bereganatzea	105.741,73	105.741,73	55.780,40		90,00
<b>3.6 Ekintza</b> Etorkizuna Eraikiz-en protokolo jarduerak	32.741,73	32.741,73	83.409,01		100,00
<b>3.7 Ekintza</b> Erakundeen komunikazioan tendentzien analisia eta beste azterlan batzuk	106.171,73	106.171,73	98.232,68		100,00

#### Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>50.215,00</b>	<b>50.215,00</b>	<b>46.197,80</b>
<b>3.7 Ekintza</b> Erakundeen komunikazioan tendentzien analisia eta beste azterlan batzuk	50.215,00	50.215,00	46.197,80

#### 4. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera nazioarteko sareekin lotzea eta lurraldearen presentzia bermatzea nazioartean.



#### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>501.384,22</b>	<b>501.384,22</b>	<b>398.487,64</b>		
<b>4.1 Ekintza</b> Etorkizuna Eraikiz ekimenaren proiektuak sare internazionalekin konektatzea	340.192,11	340.192,11	245.719,19		97,10
<b>4.2 Ekintza</b> Mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzea	161.192,11	161.192,11	152.768,45		95,80

#### Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>50.000,00</b>	<b>50.000,00</b>	<b>50.000,00</b>
<b>4.2 Ekintza</b> Mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzea	50.000,00	50.000,00	50.000,00

#### Departamentuaren jarduketa operatiboa


**Urteko helburua:** 2020-2023 epealdiko Plan Estrategikoa eta Gobernu Plana modu eraginkor eta efizientean kudeatzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Lortu diren helburu departamentalaren portzentajea (>70)	Ehunekoak	88,00	70,00	89,75	70,00
Departamentu arteko Batzordearen jardunaren balorazioa (>7).	Kopurua	7,22	7,50	6,75	7,50


#### Joera



Lortu diren helburu departamentalaren portzentajea (>%70) - Ehunekoa



Departamentu arteko Batzordearen jardunaren balorazioa (>7). - Kopurua



## Memoria

2019-2023 legealdiaren hasieran 2020-2023 Plan Estrategikoa onartu zen, eta, horrela, berretsi egin zen plangintzak Gipuzkoako Foru Aldundian hartu duen garrantzia. Gainera, politika publikoen jarraipenerako egituren zeregina indartzeko lan egin dugu, eta horretarako, aurreko legealdian eraikitako egituretatik eta dinamiketarik abiatu gara. Bestalde, Plan Estrategiko berria aurrekoaren kasuan baino askoz parte-hartzaileagoa izan da; plan horretan, departamentu guztietako 120 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

Helburu operatibo hori bat dator erakundearen aplikatzen ari den gobernantza eredu berriarekin. Estrategia Zuzendaritza arduratzen da hori betetzen dela bermatzeaz, eta, horretarako, beharrezkoa da aurrekontuko programetan jasotako helburu guztien jarraipena egitea. Foru jarduera ikuspegi estrategikoarekin lerrokatzeko aurrerapausoak eman badira ere, plangintzarako tresnen (genero berdintasunerako plana, GJH ) arteko koherentzia eta koordinazioa lortzen saiatzeaz gain, hori guztia Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuaren (EBA) bidez, EBAREN potentzialtasuna indartzeko azterketa sakona egiteko beharra antzeman genuen. Ildo horretan, entzute prozesu garrantzitsua egin dugu aurrekontu programen kudeatzaileen premiak hautemateko eta, horrela, EBA kudeaketa tresna gisa erabiltzea ahalbidetuko duten hobekuntza planak diseinatuz. Ildo horretan, 2022an aplikazio informatiko berri bat lantzen aritu gara, PEAREN eta aurrekontuaren jarraipena errazteko eta EBAREN erabilera oinarritzko kudeaketa tresna gisa sendotzeko.

Balorazio kuantitatiboa

Helburua zenbateraino bete den neurtzeko eta baloratzeko, hiru erreferentzia hartu dira kontuan: a) Adierazleen betetze-maila; b) Jarduera-ildoaren aurrerapen-maila; c) Aurrekontua zenbateraino bete den.

a) Adierazleen betetze-mailari dagokionez, 2022ko abenduan jaso ditugun datuak erakusten dira jarraian:

## Memoria

Lortu diren departamentuen helburuen ehunekoa (>% 70): % 89,75.  
Departamentu Arteko Batzordearen funtzionamenduaren balorazioa (>7): 6,75.

Lehenengo adierazleari dagokionez, proposatutako helburua lortu dela ikus daiteke; izan ere, departamentuetako helburuen betetze-maila, 2022ko ekitaldiari dagokiona, % 89,75koa izan da. Erakundearen helburuen aurrerapenaren arloan erregistratutako emaitzak oso onak izan dira.

Azkenik, kudeaketa baloratzeko, garrantzitsua da barne-dinamikak egituratuta egotea eta sendoak izatea. Neurtzeko, Departamentu Arteko Batzordeak gauzatzen duen dinamikaren balorazioa erabiltzen da adierazle gisa, eta 6,75ko balioa du, ezarritako helburutik gertu.

Ondorio gisa, adierazleen betetze-maila egokia izan dela esan daiteke.

b) Jarduera-ildoen aurrerapen-maila (% 94)

Helburua lortzeko, jarduera-ildo bakarra ezarri zen: "EBA sistema: Planaren jarraipena, ebaluazioa eta komunikazioa".

Aurrerapena % 94koa izan da, handia, beraz. Oro har, abian jarritako ekintzak modu egokian eta ezarritako epeen barruan egin dira.

c) Aurrekontuaren gauzatze-maila (% 100)

Helburu honen bidez lortutako aurrekontu-betetze-maila erabatekoa izan da, % 100ekoa.

Hizkuntza berdintasunaren ikuspegia

Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua balio handiko tresna da hizkuntza berdintasuna bultzatzeko; izan ere, politika publikoen definizioan zeharkako politiken integrazioa sendotzea bilatzen du. Testuinguru horretan, prozedura bat diseinatu dugu, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzaren eskutik, departamentu guztietan komuna den arlo batean (kontratazioa eta dirulaguntzak) tresna horren erabilera fokalizatzen.


Genero berdintasunaren ikuspegia

Genero berdintasunaren kasuan, Estrategiako programak genero berdintasunaren ikuspegia ere txertatzen du bere ekintza guztien definizioan eta garapenean. Zentzu horretan, garrantzi berezia du zuzendaritzatik mekanismo batzuk ezarri ahal izatea, erakunde osoak ikuspegi hori modu eraginkorrean txertatu dezan jarduera programetan. Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua balio handiko tresna da genero berdintasuna bultzatzeko; izan ere, politika publikoen definizioan zeharkako politiken integrazioa sendotzea bilatzen du. Helburu hori lortzeko, Berdintasun Planaren jarraipena modu eraginkorragoan egitea errazten duen sistema bat prestatu dugu.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa.



% 92,43



% 7,57

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>303.798,68</b>	<b>338.737,70</b>	<b>340.340,14</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Departamentu Arteko Batzordearen dinamizazioa eta Departamentuko Batzordei laguntza eskaini	11.483,46	11.483,46	11.683,84		85,80
<b>1.2 Ekintza</b>					
Emaitzetara bideratutako aurrekontu prozesua (EBA) sendotu eta hobetu	229.632,97	264.571,99	265.473,30		100,00
<b>1.3 Ekintza</b>					
Foru Aldundiaren jarduera GJH eta beste zeharkako politika batzuekin lerrokatu.	51.198,79	51.198,79	51.499,16		100,00
<b>1.4 Ekintza</b>					
Plan Estrategikoaren jarraipena.	11.483,46	11.483,46	11.683,84		90,00

## GENERO BERDINTASUNENKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

**Beharraren eboluzioa:**

Genero berdintasuneko politikak zeharkotasuna du bere ardatz eta horrek adierazten du politika publiko guztiek jaso behar dituztela berau bermatzen duten neurri eta ekintzak. Estrategia Zuzendaritzatik planifikazio erreminten martxan jartzea zehaztu eta gidatzerakoan, helburu hau ahalbideratuko duten ekintzak jasotzeko eragin daiteke.

**Kuantifikazioa:** 88.931,89 ( % 0,82 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	( % 1,67 )	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorruta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	100,00	
Go.HO.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako plangintza hobetzen jarraitzea.	( % 11,67 )	Go.2.1.1. EBA eta Midenet plangintza orokorreko tresnak berdintasunaren arloko foru politika planifikatzeko eta jarraipena egiteko beharrianetara egokitzea.	100,00	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	( % 26,67 )	Go.5.1.3. GFAREN azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	100,00	
Ek.HO.10.1. Berdintasunak ekonomia eta gizarte eraldaketan duen balioaz herritarrek sentsibilizatzea.	( % 6,67 )	Ek.10.1.3. Covid-19k sorrarazitako krisialdi globalak (krisialdi ekonomikoa, soziala, sanitarioa eta segurtasun arlokoa) emakumeengan eta gizonengan, bereiz hartuta, eragindako inpaktuari buruzko azterlan bat egitea.	100,00	
Ea.HO.8.1. Emakumeen elkarteetan, emakumeen etxeen eta ahalduzko eskolen lana indartzea, emakumeen ahalduzko pertsonala eta kolektiboa garatzeko tresna gisa.	( % 6,67 )	Ea.8.1.2. Emakumeen Etxeen lurralde mailako eredu propio bat garatzea (eginkizunak eta helburuak, lurralde aniztasuna, GFAREKIKO harremana, aurrekontua, etab.).	100,00	



Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkari eta/edo postu publikoetan.	( % 46,67 )	Ea.9.3.1. GFAren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	100,00	
		Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	100,00	
		Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.	100,00	

## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

La política de igualdad lingüística se caracteriza por su transversalidad por lo que el conjunto de las políticas públicas han de incorporar medidas y actuaciones que promuevan y garanticen la misma. De ahí que desde la Dirección de Estrategia en el momento de definir y orientar la puesta en marcha de herramientas de planificación, se puede influir para que las mismas incorporen actuaciones que contribuyan al logro de ese objetivo.

**Kuantifikazioa:** 2.955,42 ( % 0,03 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	( % 40,00 )	Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.	100,00
		Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da	100,00
		Prentsa iragarkiak eta gainerako publizitate ekintzak 2 hizkuntza ofizialetan egingo dira.	100,00
3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	( % 6,00 )	3.1.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	85,80
3.4. Baliabide informatikoak	( % 20,00 )	Monitorizazio tresna informatikoen erabilera eta datu tratamendua euskaraz egin ahal izatea bermatuko da.	100,00
5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	( % 20,00 )	5.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak	100,00
		5.3.2. Beste entitateekiko ahozko harremanak	100,00
6.1. Estrategia: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	( % 14,00 )	6.1.1. Hizkuntzen kudeaketarako planteamendua, epe luzerako ikuspegiarekin eta epe ertain edota laburrerako helburuekin, eta horren ebaluazioa	85,80

GJH

**Kuantifikazioa:** 10.953.986,81 ( % 100,91 )

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>11-HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK</b> Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	<b>275.652,93</b>	
<b>Helburura</b>	11.X1 - Euskararen erabilera sustatzea.	275.652,93	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Kudeaketa Plana egin eta garatzeko laguntza ematea: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-en garatutako jarduerak.	275.652,93	
	<b>13-KLIMAREN ALDEKO EKINTZA</b> Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela).	<b>407.831,51</b>	<b>462.500,00</b>
<b>Helburura</b>	13.3 - Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hartara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko.	407.831,51	462.500,00
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Kudeaketa Plana egin eta garatzeko laguntza ematea: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-en garatutako jarduerak.	407.831,51	462.500,00
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b> Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>2.445.528,54</b>	<b>421.930,96</b>
<b>Helburura</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	902.026,19	46.197,80
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa.	302.906,72	
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizareratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredia gizartean aintzat hartua izan dadin.	599.119,47	46.197,80
<b>Helburura</b>	16.07 - Premiei erantzungo dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta adierazgarriak maila guztietan hartzen direla bermatzea.	1.221.727,20	375.733,16
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa.	11.683,84	

<b>GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak</b>		<b>Ordainketa kredituak</b>	<b>Datozen urteetako gastuak</b>
	Etorkizuna Eraikiz-en aginte koadroa eta dokumentu zorroa koordinatu, kontrolatu eta jarraitzea.	31.892,44	
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Kudeaketa Plana egin eta garatzeko laguntza ematea: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-en garatutako jarduerak.	1.175.229,95	375.733,16
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredia gizartean aintzat hartua izan dadin.	2.920,96	
<b>Helbubura</b>	16.10 - Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarriko askatasunak babestea, estatuko legeen eta nazioarteko akordioen arabera.	321.775,15	
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredia gizartean aintzat hartua izan dadin.	321.775,15	
	<b>17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA</b> Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	<b>5.160.045,37</b>	<b>1.780.497,50</b>
<b>Helbubura</b>	17.16 - Garapen Jasangarrirako Munduko Aliantza hobetzea, hainbat interesdunen arteko aliantzekin osatuta. Aliantza horiek ezagutza, espezializazioa, teknologia eta finantza baliabideak trukatu dituzte, garapen jasangarriko helburuak lortzen laguntzeko herrialde guztietan, bereziki garatzen ari diren herrialdeetan.	626.982,98	275.000,00
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa.	25.749,58	
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Kudeaketa Plana egin eta garatzeko laguntza ematea: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-en garatutako jarduerak.	401.989,59	250.000,00
	Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera nazioarteko sareekin lotzea eta lurraldearen presentzia bermatzea nazioartean.	199.243,82	25.000,00
<b>Helbubura</b>	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	4.533.062,38	1.505.497,50
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Etorkizuna Eraikiz-en aginte koadroa eta dokumentu zorroa koordinatu, kontrolatu eta jarraitzea.	10.630,82	
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Kudeaketa Plana egin eta garatzeko laguntza ematea: Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-en garatutako jarduerak.	4.230.406,08	1.480.497,50
	Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredia gizartean aintzat hartua izan dadin.	92.781,67	
	Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera nazioarteko sareekin lotzea eta lurraldearen presentzia bermatzea nazioartean.	199.243,82	25.000,00
<b>Guztira</b>		<b>8.289.058,35</b>	<b>2.664.928,46</b>





**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Xedatua Dispuesto</b>	<b>Gauzatzea Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	574.173,00	574.173,00	589.628,78	589.628,78	589.628,78	102,69
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	2.667.239,00	2.617.309,98	2.501.789,58	2.498.938,59	2.482.035,13	94,83
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	5.410.308,00	5.367.018,00	5.125.011,52	5.109.559,49	4.895.190,66	91,21
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>8.651.720,00</b>	<b>8.558.500,98</b>	<b>8.216.429,88</b>	<b>8.198.126,86</b>	<b>7.966.854,57</b>	<b>93,09</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	135.000,00	169.939,02	169.939,02	169.939,02	169.939,02	100,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	100.000,00	158.280,00	157.687,69	157.687,69	157.687,69	99,63
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>235.000,00</b>	<b>328.219,02</b>	<b>327.626,71</b>	<b>327.626,71</b>	<b>327.626,71</b>	<b>99,82</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>8.886.720,00</b>	<b>8.886.720,00</b>	<b>8.544.056,59</b>	<b>8.525.753,57</b>	<b>8.294.481,28</b>	<b>93,34</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales</b>	<b>Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos</b>	<b>Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados</b>	<b>Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	50.215,00	153.065,00	118.195,30	118.195,30	77,22
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.986.734,00	2.711.734,00	2.561.733,16	2.546.733,16	93,92
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>2.036.949,00</b>	<b>2.864.799,00</b>	<b>2.679.928,46</b>	<b>2.664.928,46</b>	<b>93,02</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>					
<b>Guztira / Total</b>	<b>2.036.949,00</b>	<b>2.864.799,00</b>	<b>2.679.928,46</b>	<b>2.664.928,46</b>	<b>93,02</b>



**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	490.721,36	93.470,74		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	2.380.118,92	101.930,38	118.195,30	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	4.895.192,74		2.546.733,16	
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>7.766.033,02</b>	<b>195.401,12</b>	<b>2.664.928,46</b>	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	24.997,50	144.939,02		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	157.687,69			
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>182.685,19</b>	<b>144.939,02</b>		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>7.948.718,21</b>	<b>340.340,14</b>	<b>2.664.928,46</b>	
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>89,44</b>	<b>3,83</b>	<b>93,02</b>	

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	01 - DIPUTATU NAGUSIA
<b>Atala:</b>	0130 - Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	300 - Komunikazioa
<b>Funtzionala:</b>	912 - Gobernu organoak

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren esku dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren komunikazio estrategia osoa zuzentzea, bultzatzea eta gauzatzea, Komunikazio Planean jasotakoa kontuan hartuta, 2020-2023 Plan Estrategikoan ezarritako lehentasunak komunikazioaren eremuan aplikatzeko helburuarekin. Foru Aldundiaren jarduera herritarrengana hurbildu behar da, eta komunikazioa etengabea eta eraginkorra izango dela bermatu, herritarrek erakunde honi buruz duten pertzepzioa hobetzeko eta eguneratzeko. Era berean, barne komunikazioa eta Batzar Nagusietakoa indartu behar dira, gardentasunerako urratsak eginez eta langileen inplikazioa areagotuz.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Azken urteotan agerian geratu da erakunde publikoen eta herritarren arteko urruntzea. Gainera, Gipuzkoako biztanleek GFari buruz duten ezagutza oso mugatua da. Hori dela eta, beharrezkoa da prozesuen zilegitasuna sendotzea eta herritarrek eragile politiko eta instituzionalengan duten konfiantza eta inplikazioa areagotzea.

Herritarrek hurbiltasunez hautemango duten komunikazioari heldu behar zaio, haiek komunitate bizitzaren garapenean parte hartzea erraztuko duena. Komunikazio egokia egitea gizarte modernoaren konplexutasunari aurre egiteko modu bat da eta, are gehiago, Gipuzkoan, non gizarteak komunitate zentzu indartsua duen eta non konpromisoa, parte-hartzea eta lurralde oreka balio nagusiak diren Gipuzkoako gizartearentzat. Horregatik, Aldundiak lankidetzat sustatuko du herritarrekin eta eragile sozialekin.

Gainera, COVID-19 pandemiaren ondorioz, bizkortu egin dira eraldaketa sozial, produktibo eta ekonomiko handiak, eta baita herritarrek informatzeko dituzten moduak eta kanalak ere. Testuinguru horretan, Foru Aldundiaren kudeaketari buruzko informazioa zabaltzea erronka handia da, eta uneoro informazio arduratsua, eguneratua eta egiazkoa ematea eskatzen du, kanalak eta formatu berrietara egokituz.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin nahi du NBEren Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH). Aurrekontu programa honen kasuan, 16. helburuan oinarritzen da: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.

### Behararen eboluzioa:

Komunikazio Zuzendaritzaren helburu nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiaren ezagutza maila handitzea denez, zenbait kanal erabiltzen ditu herritarrei erakundearen berri emateko. Nabarmenena hedabideei zuzendutako lana da, egunero prentsari zuzendutako agerraldien edota prentsa oharren bidez egiten dena. Baina komunikazio digitalak ere pisu handia hartu du azken urteotan, bideoen, sare sozialen eta ikus-entzunezkoen presentzia handituz joan baita, gizartean gertatzen ari diren aldaketekin batera. Gainera, herritarrekin harremanetan jartzeko bide zuzenak bultzatu dira, ekitaldien, topaketen, erakusketen eta abarren bidez. Halaber, langileen artean eguneroko prentsa dossier bat zabaltzen dugu, hedabideek erakundeari buruz argitaratutako albisteekin. Albiste horiek intranetean daude eskuragarri goizero eta 300 ikusletik gora izaten dira egunero. Legealdi honetarako erronka nagusietako bat da Foru Aldundiaren lana herritarrengana hurbiltzea; horretarako, komunikaziorako bide tradizionalak nahiz komunikazio tresna eta sistema berriak erabili ditugu.

### Nori zuzendua:

Herritarrak, langileria eta Batzar Nagusiak.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Langilegoa, ekintzak garatzeko kontratatutako enpresak, baliabide ekonomikoak, komunikaziorako tresneria eta teknologi berriak.

### 2. Garatu beharreko

Bilerak, plangintzak, prentsurrekoak eta ekitaldiak, prentsa-oharrak, komunikazio bide berriak hobetzeko prestakuntza, kontratuak.

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Komunikazio Plana, eguneroko prentsa dossierra, prentsa areto digitalizatua, zuzeneko komunikazioa.

#### Programaren arau esparrua:

Hauteskunde garaiko araudia.  
Kontratu publikoen araudia.


#### 2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

**Urteko helburua:** Herritarrekin komunikazio kualitatibo eta kuantitatiboa sustatzea, konfiantza maila handiagoa lortzeko.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Gobernu taldearen ezagutza eta balorazio maila	Kopurua	20,97	25,72	20,97	26,69
Komunikazio Plan berria jasotzen diren helburuen > % 90 betetzea.	Kopurua	45,00	67,50	70,00	90,00

#### Joera

Gobernu taldearen ezagutza eta balorazio maila – Kopurua



Komunikazio Plan berriari jasotzen diren helburuen > % 90 betetzea. – Kopurua



## Memoria

